

ASTELEHENEAN EGINDAKO IRAGARPENA. 2023ko ABUZTUAREN 07a. 10:00.

ASTELEHENA (2023/08/07)

Goizean lainoa eta lanbroa sortuko dira. Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da, behe-hodeien tarte batzuekin egunaren lehen zatian. Norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da; eguerdi partean ipar-ekialdetik finkatuko da tarte bizi batzuekin. Tenperatura maximoak gutxi edo nahikoa igoko dira, nabarmen Araba hegoaldean.

Tenperaturak (°C)	
	<i>Maximoa</i>
Donostia	23
Bilbao	25
Gasteiz	27
Arrasate	26

ASTEARTEA (2023/08/08)

Goizean lanbroa eta lainogune batzuk sortuko dira. Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da, behe-hodeien tarteren batekin goizaldean eta goizean goiz. Norabide aldakorreko haize ahula ibiliko da, Araba hegoaldean eki-osagaikoa nagusituz. Eguerditik aurrera haizea ipar-ekialdetik finkatuko da, tarte biziarekin eta bolada gogorren batekin haizeguneetan. Tenperatura igo egingo da; gutxi minimoak eta nahikoa edo nabarmen maximoak, batez ere barnealdean.

Tenperaturak (°C)		
	<i>Minimoa</i>	<i>Maximoa</i>
Donostia	15	27
Bilbao	16	29
Gasteiz	10	33
Arrasate	12	31

ASTEAZKENA (2023/08/09)

Goiz-lanbroa. Hauts-gandua ager daiteke. Zerua hodei gutxirekin edo oskarbi egongo da; arratsaldetik aurrera bero-hodeiak agertuko dira. Hego-ekialdeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogor batzuekin haizeguneetan goizean goiz eta arratsalde-gauean. Eguerditik aurrera haizeak eki/ipar-ekialdera egingo du Kantauri isurialdean, kostaldetik hasita. Azken orduetan haizeak mendebal/ipar-mendebaldera egin lezake kostaldean, bolada gogorrekin. Tenperatura minimoak gutxi edo nahikoa igoko dira. Tenperatura maximoak asko igoko dira, Kantauri isurialdean batez ere.

OSTEGUNA (2023/08/10)

Goiz-lanbroa. Zerua hodei gutxirekin edo partez hodeitua egongo da, behe-hodeien tarte batzuekin ipar partean. Goizaldean mendebal/ipar-mendebaldeko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin kostaldean. Gainontzeko orduetan ipar-osagaiko haize ahul-bizia ibiliko da, bolada gogorrekin arratsaldean eta haizeguneetan. Tenperatura minimoak gutxi edo nahikoa igoko dira eta maximoak asko jaitsiko dira.